

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitaleguneko sei laborategiak “pabiloi urdin”-eko eraikin berrituan kokatuko dira

Nafarroako Gobernuak gaur eman du baimena zerbitzu horiek barneratzeko eta lehenengo fase bat eraikitzeko proiektua idazteko lizitazioa

Asteazkena, 2016.eko abenduak 21

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran erabaki bat onartu du eta, haren bidez, Osasunbideari Nafarroako Ospitaleguneko sei laborategiak "pabiloi urdin"-eko eraikinean barneratzeko aurreproiektu baten idazketa lizitatzeko baimena ematen da, bai eta I. faseko eraikuntza-proiektuaren idazketa lizitatzeko ere, analisi klinikoan laborategiak, hematologia eta larrialdiak hartzen dituenak. 505.451,21 euroko gastua da, guztira.

Analisi kliniko, hematologia eta larrialdien laborategi bateratua (LUNA) Navarrabiomed-en Ikerketa Zentroak okupatzen duen eraikineko lehen solairuan dago gaur egun, 2011n inauguratu zena, eta hura eraikitzeko Europar Batasunaren EGEF funtsek 7,8 milioi euroko laguntza eman zuen. Diru-laguntza hori emateko, higiezin osoan ikerketa-lana egiteko konpromisoa hartu behar zen. Horregatik, laborategiak husten ez baziren, Gobernuak jasotako laguntza guztia edo zati handi bat itzuli beharko zuen.

Aipatutako hiru laborategiak berriz kokatzeko beharrari honako hau gehitu behar zaio: espazio horretan bertan Nafarroako Ospitalegunean sakabanatutako beste zerbitzu batzuk barneratzea, Nafarroako Ospitaleguneko laborategien bateratze fisikoa eta antolaketa-mailakoa lortzeko asmoz. Mikrobiologiako laborategia da (lehenengo Nafarroako ospitalean), Anatomia Patologikoa (unitate bat lehenengo Nafarroako ospitalean du eta bestea, Virgen del Caminon), eta Genetika Zerbitzuko (Virgen del Caminon). Egungo laborategiek gabezi garrantzitsuak dituzte beraien egungo funtzioak behar bezala betetzeko, eta laborategi bakoitzean teknologia nahiz zerbitzu berriak sartzea eragozten dute.

Pabiloi urdina, aukera egokia

Zerbitzu horiek beste leku batzuetan jartzeko aukerei buruzko azterketak egin ondoren, eraikin berrien eraikuntza nahiz lehendik dauden beste batzuen aldaketa kontuan hartuz, Osasunbideak "pabiloi urdina" izenekoa berritzea eta zabaltzea dela irtenbide egokiena erabaki du.

Aukeraketa hori ekarri duten arrazoia da, pabiloian dagoen espazioari esker, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi guztiak bertan kokatu ahalko zirela. Gainera, ikusita eraikinak ez duela laguntza-izaerako zerbitzurik administrazio-mailakoa baizik, azken horiek beste toki

batzuetara eramatea ez da hain konplexua. Gainera, partzelaren egiturak eta neurriek obrak hainbat fasetan egiten uzten dute.

Zehazki, bi fase aurreikusten dira. Lehenengoan, gaur egun Navarrabiomed-en eraikinean dagoen LUNA laborategia lekuz aldatuko da, eta bigarrenengan, Mikrobiologia, Anatomia Patologikoa eta Genetikakoak barneratuko dira. Guztira, eraikin berriak 8.755 metro koadro erabilgarri izango du (3.278 m² lehenengo faserako eta 5.477 m² bigarrenerako), eta eraikitako 10.944 metro koadroko azalera bat okupatuko du. 2017, 2018 eta 2019an egingo zen lehenengo faseak 7.380.000 euroko kostua du.

Nafarroako Gobernuak gaur baimendu duen lizitazioak, alde batetik, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi guztiak barneratzeko aurreproiektuaren idazketa jasotzen du, eta bestetik, berritzeko proiektuaren idazketa gaur egun Navarrabiomed-eko eraikinean kokatutako bulegoak hartzeko.